

XABIER SAINZ PEZONAGA KAZETARIA ETA IDAZLEA

«Euskal Herriko askotarikotasunaren beste eredu nabari bat da Erriberan»

Bere burua nafartzat duelako ekin zion euskara ikasteari. Ahalegina, baina, ez zen horretan gelditu. Bere jaioterrian, Erriberan, euskarak zuen presentzia ikertzeari ere ekin zion, eta 'Euskara Nafarroako Erriberan' liburuan bildu du urteetako lana.

Erriberako herri hizkeraren hitz aunitzen erroa euskalduna da: mandarra, gardama, txipa, abarka, zamarra, zirria... Zerrenda oparoa da. Bertakoek betidanik erabili izan dituzte; eta, horregatik, eta euskara ez jakiteagatik, gehienek gaztelaniatzat jotzen dituzte hitz horiek. Xabier Sainz Pezonaga corellarra euskara ikasten hasi, eta euskal lexiko horretaz ohartu zen. Hitz zerrenda luzea argitaratu du *El euskera en la Ribera de Navarra (Euskara Nafarroako Erriberan)* liburuan. Horretaz, euskarak, oro har, hegoaldeko lur lehorretan mendeetan bizi izan duen egoeraz, eta egungo egoeraz mintzatu gara kazetari eta idazlearekin.

■ **Zure jaioterrian, Corellan, txiki-txikitandik entzuten zenituen hitz asko, euskara zirela ohartu zinen geroago. Bertakoek ez dute hori uste, ezta?**

Ez. Behin esan nion herritar bati *muga* hitza euskara zela, eta berak ezetz; «nola izango zen, bada, euskara, baldin eta berak betidanik entzun eta erabili bazuen!». Nik baietz, eta berriz ere berak ezetz: «Betiko hitza zela hura». Jendea ez da ohartzen, ez da euskaltasun horretaz jabetzen; eta, ondorioz, gaztelaniatzat jotzen dituzte hitzok. Ildo horretan, uste dut interesgarria dela nire liburua.

EUSKAL LEXIKOA

«Bizitzako alor guztietako hitzetan aurki daiteke euskal lexikoa, ez bakarrik, lana edo lurrarekin zerikusia duten hitzetan»

EUSKALDUNAK ERRIBERAN

«Erriberan beti egon dira euskaldunak, eta hortik dator gure euskalduntasuna. Nafarrak garen heinean, euskaldunak ere bagara»

■ Zer aurkitzen ahal dugu zure liburuaren baitan?

Herri hizkuntzaren hitz euskaldunak ikertzea izan da nire lanaren funtsa. Dena den, ikerketa hori kokatzeko, sarrera historiko bat idatzi dut liburuan, eta, bertan, argitzen saiatu naiz mendeetan euskarak Erriberarekin zein lotura izan dituen. Halaber, toponimiari atal bat eskaini diot, eta, bukeran, historikoki egon diren euskaldunak eta egun euskararen inguruan sustatzen ari den mugimendua aztertu ditut.

■ Euskal lexikoa, batez ere, nekazari giroari, lanari eta lurrari, egonen da lotuta, ezta?

Bitxia bada ere, bizitzako alor guztietako hitz euskaldunak aurki daitezke Erriberan. Jakina, lanarekin zerikusia duen lexikoa ugariagoa da, baina ba-

daude etxeko tresnekin, arroparekin, animaliekin... lotura duten hainbat hitz.

■ Lan neketsua izango da hitz horiek guztiak biltzea?

Neketsua bada, eta urte asko eman ditut zerrenda osatzen, baina lan honek eskatzen duena da bertakoa izatea edo bertako errealitatea sakonki ezagutzea. Ez dira alor bakar batean erabiltzen diren hitzak, eta eguneroko bizimodua ezagutu beharra dago horiekin emateko. Gainera, azkenaldian, lexiko hau, neurri handi batean, galtzen ari da, hainbat lan eta tresneria galtzen ari den heinean; eta dagoeneko zenbait hitz ez dira erabiltzen.

■ Orduan, toponimian ere euskal lexikoa anitza da hegoaldeko eremu lehor honetan?

Bai. Bardean, adibidez, oso nabaria da euskal toponimia-

ren presentzia. Sarritan izen-deiturekin lotuta dauden hitzak dira, esaterako, Fuente de Olabe edo Vedado de Eguaras; baina, badaude berez euskaldunak diren beste hainbat hitz ere: landazuria, artea, piskerra, santxikorrota, landarregia... Horiek guztiak euskara garbia dira.

■ Euskalduna behar duzu izan, dena den, horretaz ohartzeko?

Bai. Arestian esan bezala, askok gaztelaniatzat jotzen dituzte hitzok, eta ez dute beste inongo hausnarketarik egiten.

■ Eta zuk nola ekin zenion euskara ikasteari?

Iruñera ikasketak egitera joan, eta bertan hasi nintzen. Neure buruari nafar izatea zer zen galdetu, eta horren ondoren etorri zen euskara ikasteko erabakia. Nire ustez, euskara ere nire jaioterriko gauza zen, aspalditik Corellako hitzak nondik zetozen ikertzeko kezka nuen, eta horretan ez dago dudarik: Corellan ere euskara bada. Erriberan beti egon dira euskaldunak, eta hortik dator gure euskalduntasuna.

Azken batean, gu ez gara Andaluzian bizi, Nafarroan baizik. Erribera Nafarroa da, eta, Nafarroa den heinean, Euskal Herria da. Euskal Herriko askotarikotasunaren beste eredu nabari bat da Erriberan. Historikoki, Aragoirekin lotzeko ohitura


egon da, eta horrek bere eragina izan du; baina, hala ere, historia beti gure kalterako izan arren, euskarari eutsi egin zaio mendeetan, Nafarroako hegoaldean.

■ Euskaldunek Erriberan izan duten presentzia ere ikertu duzu; zein ondorio atera dituzu?

Beti egon da jende euskalduna gurean. Adibidez, Diego Pascual de Eraso bilbotarrak oso harreman estua izan zuen Corellarekin, eta *Euzkadi* egunkarian Erriberako gaiez idazten zuen. Eugenio Salamero Rezak ere Erriberaren inguruan idatzi zuen. Jende aunitz egon da. Alde horretatik, niretzat oso garrantzitsua izan zen Pedro Arellano abiltarrak egin zuen lana. Honek bertako folkloaren inguruko ikerketa bat argi-



JOXE LACALLE



MARTIKO S.A. Gure Baserrietako Produktuak

AHATEKIETAN ADITUAK ETA ARITUAK

Proba itzazue ahate gibela, urdaiazpikoa, xerrak, ahate keztatuak, konfit, pateak,... baita prestaturiko jakiak ere.

Dastatu arrain keztatu aukera zabala...

ON EGIN DEIZUELA